

Urtarrilaren 21ean  
**URTEAN ZEHARREKO 3. IGANDEA**

**Agurra**

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Igande on, senideok!

Eukaristia ospakizuna, beti da asmo onak izan eta etorkizunerako aldaketa-erabakiak hartzeko gune aproposa. Eukaristia «aukera» bat baita: ospatzeko, sendotzeko eta, gaur bereziki, bihotz-berritzeko.

Bai, Jesusi jarraitzeak bihotz berria eskatzen du, Berea bezalako bihotza. Eukaristia sendo dezala bataioko hitza, eta ugari ditzala gudan maitasuna eta leialtasun gogoa.

**Damu-otoitza**

Jesus Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzen bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen uen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

## Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zuzendu zeure gogora gure bizi-tza,  
fruitu on ugari eman dezagun  
zure Seme maitearen izenean.  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak herri guztiak maite ditu. Jainkoaren Salbamena ez da Israel herrira mugatzen, gero eta zabalagoa baita Kristoren agerpenaz. Bihotz berri batek eta fede sendoak dakar egiazko salbamena.

## Lehenengo irakurgaia (*Jon 3, 1-5. 10*)

Jonas profetaren liburutik

Jaunaren hitza etorri zitzaion berriro Jonasi, eta esan zion: «Jaiki zaitez, eta zoaz Ninive hiri haundira, eta hots egin ezazu han, Nik esango dizudana».

Eta Jaunak agindu bezala, jaiki eta Ninivera joan zen Jonas. Ninive, hiri handia zen (hiru eguneko bidea zuen alderik alde). Jonas sartu zen hirian, eta egun bateko bidea eginik, honela oihu egin zuen: «Berrogei egunen buruan, Ninive xehatua izango da!» Sinetsi zioten Ninivetarrek Jaungoikoari, eta barau deia zabaldu zuten; eta denak, haundi eta txiki, zakukiz jantzi ziren.

Ikusi zuen Jaungoikoak, ninivetarrek egin zutena, eta beren bide okerretik itzultzen zirela; errukitu zitzaion, eta ez zien egin haientzat erabakia zeukan hondamendia.

**Erantzun-salmoa** (*Sal* 24, 4-5. 6 eta 7cd. 8-9)

Zu zai-tut, Jau - na, ni-re ar - gi, zu - rebi - de-  
ak e - ra - ku - tsi.

Erakuts niri, Jauna, zure bideak,  
adierazi zure bidexkak.  
Eraman nazazu zure egia bidetik, eta argitu, '  
Zu bait zara nire Jainko salbatzaile,  
Zu zaitut egun osoan nire itxaropide. R/.

Oroi zaitetz zure errukiaz, Jauna,  
oroi zure maitasunaz, betidanik baitira.  
Oroi zaitetz nitaz zure maitasunean,  
Jauna, zure ontasunean. R/.

On eta zure en da Jauna,  
horregatik erakusten die hobendunei bidea.  
Apalak zuzenbidez daramatza,  
erakusten die bere bidea apalei. R/.

**Bigarren irakurgaia** (*1 Ko* 7, 29-31)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Hara zer esaten dizuedan: «bizitza laburra da. Beraz, emaztedunak, emazterik ez balute bezala bizi bitez; negarrez daudenak, negarrez ez baleude bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erostunak, jabe ez balira bezala; eta mundu

honetaz baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala. Iheskorra bait da mundu honetako irudia».

### Aleluia (Ik. Mk 1, 15b. d)



Hurbil da Jaungoikoaren erreinua;  
sinetsi berri ona. R/.

### Ebanjelioa (Mk 1, 14.20)

#### Homiliarako argibideak

*Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi berri ona*

**Jesusek ez dizkigu kanpoko aldetak proposatzen, barru** barruko aldetak eskatzen digu baita gizarteko egituren aldetak ere. Kontzientzia-aldetak behar dugu. Eta hori ez da lortzen nor bere buruari begira, beste baten aurrean jarrita baizik. Jesusek Jainkoaren aurrean kokatzen du gizakia, Jainko errukitsuaren aurrean.

**Jainkoaren Erreinuaren** gertutasunak Jainkoak eskaintzen digun errukizko maitasuna onartu eta gozatzera bultzatzen gaitu. Bihotz-berritzeko deia horixe da: Ebanjelioan eskaintzen zaigun Berri Onari bihotza zabaltzea. Ebanjelioa horregatik da Berri On: Jainkoaren maitasun errukitsua Jesusengan egiten ari dena erakusten digulako.

Jainkoa aurkitu izanak askatu zituen Ninivetarrak suntsipenetik, elkar aurkitze horrek ekarri baitzuen haien bihotz-berritzea (Jn 3,1-

5.10). Jesusekin aurkitu izanak aldatu zuen arrantzaleen bizitza, sareak utzi eta Haren **ikasle** bilakatzeraino. Dagoeneko ez dute arrainik arrantzatuko, baizik eta “giza arrantzaile” izango dira, gizakiak galbidearen itsas ilunetik askatzeko. Beharrezkoa da horretarako **pentsamoldea aldatzea**, Jesusen ikasbideak geureganatzea. Balio eta ikasbide horien iturria ez da legea edo arauak betetzea, Jesusekin bat egitea baizik.

Erreinuko bizitza onartzen eta Jesusekin bete-betean bat egiten laguntzen diguna **fedea** da. Erreinuaren barneratzeko Jainkoarengan sinetsi behar da, Jesusengan sinetsi, Haren Ebanjelioa onartu. Jesusi ondo-ondotik jarraitzeak sortzen du bihotz berria eta jokabide berriak. Jesus da guretzat absolutu bakarra, gainontzeko gauzak erlatiboak dira; bigarren mailakoak. Mundu honetako ereduak eta itxurak igaro egiten dira (1Ko 7, 29-31). Ez du esan nahi horrek mundu honetako gauzak onek balio ez dutenik, balio nagusia den Jesusen arabera bere mailan jarri behar ditugula baizik. Geure bihotza gauzetara lotu gabe, ezerekin Jainkoa ordezkatu gabe. Eukaristiak berri gaitzala Jesusen jarraipenean.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Egiogun otoitz senideok, Jainko Aita errukiarrari –bere eskuetan baikaude– eta eska diezaiogun uste onez, entzun ditzala bere herriaren otoitzak:

- Hemen Jaunaren izenean bildua eta mundu osoan zabaldua dagoen Elizaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriaren alde, ongizatean eta bakean aurrerapausoak eman ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bidean direnen alde, gaixoen, kartzelatuen, behartsuen eta sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure senide hildakoen alde, Jaunak bere argizko eta zorionezko erreinuan sar ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

Betiereko Hitza den Kristorengan, Zure hitzaren betea eman diguzun Jauna, entzun Zure Elizaren otoitza eta egizu suma dezagula bihotz-berritzeko eta Ebanjeliora osoki eskaintzeko beharra, gure bizitzaz ager diezaiegun zalantzaz edo urrunduta bizi direnei Jesu Kristo Zure Seme eta gure Jauna dela gizakien egiazko Salbatzailea. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jainko ahalguztiduna,  
bizi berriaren grazia eman diguzu;  
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**